

Herritarrak	Enpresa-jarduera sustatzeko laguntzak: Zallan saltokiak eta zerbitzu profesionalak alokatzeko, modernizatzeko eta abian jartzeko laguntza, ekonomia-jardueraren bat gauzatzeko (Zallalokalak).
Galdera	Erantzuna
Zer da? Zertarako?	Programa honen xedea da mikroenpresetarako (10 langile baino gutxiago, eta 2 milioi euro baino gutxiagoko fakturazioa) lokalak alokatzeko eta/edo egokitzeko erraztasunak ematea. Lokal horiek izan daitezke saltokiak edo zerbitzu profesionalak emateko lekuak, baina ekonomia-jarduera sortzea izan behar dute xede. Bi laguntza mota: 1.- Negozioen lehen hilabeteetako alokairu-kuotak ordaintzeko laguntzak. 2.- Enpresa berriak sortzeko laguntzak.
Nork eska dezake?	2016/01/01etik helbide soziala eta fiskala Zallan duten enpresa, saltoki eta profesional BERRIEK. Horrez gain, diruz lagunduko diren gastuek enpresari Ekonomia Jardueren Zergan alta eman eta ondorengo 6 hilabeteetan eta/edo jarduera hasi aurreko 6 hilabeteetan sortutakoak izan behar dute.
Aurkeztu beharreko dokumentazioa	a) Eskatera-eredu normalizatua b) Eskatzailearen identifikazioa: b.1) Pertsona fisikoak: NAN b.2) b.2) Pertsona juridikoak: Eskatzailearen Identifikazio Fiskaleko Txartela, NANA eta ordezkaritza-ahalmenak; enpresa edo erakundearen eratzte-eskrituren kopia (ondorengo aldaketa guztiekin); eta dagozkion erregistroetako inskripzioa. b.3) b.3) Berezko nortasun juridikorik gabeko sozietate zibilen kasuan, Foru Ogasunak zigilatutako kontratu pribatua gehituko da. Hauen kopiak: c) Hirugarrenen alta; d) Bideragarritasun-plana; e) EJZko altaren ziurtagiria; f) Gizarte Segurantzako alta; g) Alokairu-kontratua; h) Alokairuaren lehen sei hilabeteak ordaindu izanaren egiaztagiria; i) Gastuen zerrenda eta jatorrizko fakturak ("in situ" konpultsatuko dira), eta, enpresak sortzeko laguntzen kasuan, ordaindu izanaren ziurtagiriak, baita jarduera abian jarri aurreko eta ondorengo sei hilabeteetan jaulkitako fakturak ere; j) Jarduerari ekin aurretik gutxienez hilabetez langabezian egon dela egiaztatzen duen lan-bizitzaren ziurtagiria (enpresak sortzeko laguntzen kasuan).
Non eskatu behar da?	Aurrez aurre: Udaletxean (Kosme Bibanko 2, 48860 Zalla) edo Zalla Lan zerbitzuan (El Longar 1, 1. solairua, Zalla). Urte osoko ordutegia: astelehenetik ostiralera, 8:00etatik 15:00etara. Posta arrunt bidez: Correosen bulegoetan, posta ziurtatu ireki bidez. Telematikoki: www.zalla.org -- Helbide elektronikoa: udala@zalla.org Informazio gehiago jasotzeko, deitu 010 zenbakira (udalerrian bazaude) edo 946390001 telefono-zenbakira (udalerritik kanpo bazaude).
Zenbat ordaindu behar da?	Doakoa da (0,00 euro).
Prozedurarako eta aurkezteko epea	Deialdia indarrean sartuko da Enkarterri Berri Zerbitzuak SL sozietateko Administrazio Kontseiluak onartu eta hurrengo egunean. Aurkezpena deialdi honen baldintzak bete ondoren egingo da (18 hilabete).
Aplikatu beharreko araudia	Deialdiaren oinarriak.
Eskatera egin ondoren jarraituko den prozedura	Enkarterri Berri Zerbitzuak SLren Administrazio Kontseiluak aurkeztutako eskaerak aztertu eta ebaluatuko ditu.
Ondorengo izapideen laburpena	Behar bezala ulertzeko eta ebaluatzeko beharrezkotzat jotzen den dokumentazio eta/edo informazio osagarri guztia eskatu ahal izango da. Ebazpen-proposamena egingo da. Sozietatearen webgunean emandako eta ukatutako diru-laguntzen zerrenda bat argitaratuko da, eta bertan berariaz adieraziko da diru-laguntzak zergatik ez diren aintzat hartu edo zergatik ukatu diren.
Agiri osagarriak	Zinpeko adierazpena, adierazten duena laguntzen deialdi honetako oinarriak ezagutzen eta onartzen direla. Zinpeko adierazpena, adierazten duena diru-laguntza publikoak itzultzeko prozeduretan edo zehapen-prozeduretan sartuta ez dagoela.

	<p>Zinpeko adierazpena, erakunde eskatzaileak zigor penal edo administratiborik ez duela adierazten duena.</p> <p>Zinpeko adierazpena, jarduera berbererako beste erakunde publiko edo pribatu batzuei eskatutako edo horietatik jasotako laguntzei buruzkoa.</p> <p>Zinpeko adierazpena, adierazten duena bete egiten dela Minimis araua, Europako Batzordearen Minimisaraueko laguntzei buruzko Araudian (2006ko abenduaren 15eko 1998/2006 Araudia (EE)) ezarritakoarekin bat. Araudi hori Europar Batasuneko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen 2006ko abenduaren 28an, eta horren bidez ordezkatu zen 69/2001 Araudia (EE). Halaber, arauaren ondoko berrikuspenak betetzen dituela adieraziko da.</p> <p>Zinpeko adierazpena, zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela adierazten duena.</p> <p>Zinpeko adierazpena, Zalla udalerrian, oinarri hauek argitaratu ondoren, zerga-errolden epigrafe bereko jardueraren batean etenaldirik egin ez duela adierazten duena.</p>
Nork onartzen du?	EBZ sozietateko presidentek egingo du ebazpena.
Izapideaz arduratuko den udal-saila	EKONOMIA- ETA ENPRESA-SUSTAPENAREN ETA TOKIKO GARAPENAREN ARLOA
Informazio honek noiz arte balio du?	Eskaerak aurkezteko epea urte honetako azken lanegunean amaituko da.
Oharrak	